**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO JAUNAK, EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIA ETA GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUAK**

## EGIAZTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**ERABAKIA, XI. LEGEGINTZALDIKO (2017-2020) EUSKO JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOAK ZERRENDA ONESTEN DITUENA.**

Politika publikoen plangintza tresna egoki bat da administrazio publikoei dagozkien jarduerak ordenatzeko eta koordinatzeko. Plangintzak, aurretik definitutako helburu batzuk dituen ekimen-multzo bat ordenatzen duenez, ekimen horien koherentziarako eta interakziorako aukera ematen du gobernu-ekintzaren barruan ezarritako helburuak lortzeko.

Era berean, plangintza-estrategiak, testuinguruari buruzko ikuspegi partekatua, aurreko planen ebaluazioa eta planifikatuko den denbora-tarterako bilakaera-balioespenak ere gehitzen dituenez, laguntzen du koherentzia indartzen eta politika publikoek gobernu-programarekin bat egiten.

**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO, CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIO DEL GOBIERNO VASCO**

## CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 17 de enero de 2017 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA LA RELACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO PARA LA XI LEGISLATURA 2017-2020.**

La Planificación de las Políticas Públicas se ha consolidado como un instrumento adecuado para ordenar y coordinar las actuaciones que corresponden a las Administraciones Públicas. La planificación, en la medida que ordena un conjunto de iniciativas que comparten unos objetivos predefinidos, posibilita la propia coherencia e interacción de tales iniciativas para alcanzar los objetivos fijados en la Acción de Gobierno.

Asimismo, en cuanto incorpora una visión compartida de contexto, una evaluación de los Planes precedentes y estimaciones de evolución dentro del horizonte temporal para el que se planifica, la estrategia de planificación permite reforzar la coherencia y alineamiento de las políticas públicas conforme al Programa de Gobierno.

Horrela bada, eta gobernu honek gobernu-ekintzaren lehentasunezko eremuak definitu dituenez, politika horiekin erlazionatutako politika eta plan estrategikoak identifikatu ditu; euskal gizartearekin hartutako konpromisorik garrantzitsuenen muina osatzen dute, eta erabaki honen I. eranskinean jaso dira.

A este respecto, y una vez definidas por este Gobierno las áreas prioritarias de la Acción de Gobierno, se han identificado las políticas y planes estratégicos vinculados a tales políticas que conforman el núcleo más relevante de los compromisos adquiridos ante la Sociedad Vasca, y que se recogen en el Anexo I del presente Acuerdo.

Eusko Jaurlaritzak identifikatu dituen 15 plan estrategikoak bat datoz “Europa 2020” Europako estrategiak planteatzen dituen hiru jarduera-ardatzekin, hain zuzen ere: hazkunde ekonomikoarekin, hazkunde adimentsuarekin eta giza garapenarekin.

Los 15 Planes estratégicos del Gobierno identificados se corresponden con los tres ejes de actuación que plantea la estrategia europea: “Europa 2020”, esto es: El crecimiento económico, el crecimiento inteligente y el desarrollo humano.

Era berean, bat datoz Nazio Batuen garapen jasangarriaren estrategiarekin, esan nahi da Garapen Jasangarriaren Helburuen barruko bost parametroekin (bost P-ak): People; Prosperity; Peace; Partnership; Planet.

Asimismo, están alineados con la estrategia de Desarrollo sostenible de las Naciones Unidas entorno a los cinco parámetros (cinco P) de los Objetivos de Desarrollo Sostenible: People; Prosperity; Peace; Partnership; Planet.

Ikuspegi hori izanik, eta legegintzaldi honetan Eusko Jaurlaritzaren plangintza-estrategiak bere helburuak lor ditzan, plan estrategikoak egiteko eta bideratzeko prozesu homogeneo bat eratzea proposatzen da. Horrenbestez, alde batetik, plangintza-estrategiari sendotasuna eman nahi zaio eta haren benetako bideragarritasuna indartu egin nahi da, beharrezkoa dituen homogeneotasuna eta koherentzia emanez, eta, bestetik, plan estrategikoak formulatzeko eta onesteko prozedura dinamizatu nahi da.

Desde esta perspectiva, y con el fin de que la estrategia de planificación del Gobierno en esta próxima legislatura pueda alcanzar sus objetivos, se propone el establecimiento de un proceso homogéneo para la elaboración y tramitación de los Planes Estratégicos. Con ello, se pretende contribuir, por un lado, a dar solidez y reforzar la viabilidad real de la planificación estratégica dotándola de la necesaria homogeneidad y coherencia y, por otro, a dinamizar el procedimiento de formulación y aprobación.

Horregatik, plan estrategiko bakoitza diseinatzeko eta inplementatzeko beharrezkoa den heterogeneotasuna ahaztu gabe, ezinbestekoa da zenbait orientazio definitzea plangintzaren lanketa-prozesuari eta amaierako edukiari koherentzia egokia emateko, politika publikoak modu koordinatuan gauzatu daitezen. Helburu hori izanik, legegintzaldi honetan plangintzak egiteko orientazio orokor batzuk sartu dira II.

Por ello, sin renunciar a la necesaria heterogeneidad en el diseño e implementación de cada plan estratégico, es preciso definir una serie de orientaciones que doten al proceso de elaboración y al contenido final de esta planificación de una coherencia adecuada para propiciar una ejecución coordinada de las diferentes políticas públicas. Con este objetivo, se incluyen en el Anexo II, una serie de

Eranskinean. III. Eranskinean, berriz, Eusko Jaurlaritzaren plan estrategiko bakoitza egiteko eta izapidetzeko zer prozedura espezifiko bete behar den jaso da.

orientaciones generales para la planificación en la legislatura. Asimismo, en el Anexo III se plantea el procedimiento específico para la elaboración y tramitación de cada uno de los Planes estratégicos del Gobierno.

Azkenik, eta erreferentzia gisa, sailetako sektore-planen hasierako proposamenak jaso dira IV. Eranskinean; izan ere, sektore-plan horiek, plan estrategikoen osagarri direnez, berariazko sektore-ekimenak garatzen dituzte Gobernu Programa bete dadin.

Por último, y a modo de referencia, se recoge en el Anexo IV una propuesta inicial de Planes sectoriales departamentales que, de forma complementaria a los Planes Estratégicos, desarrollan iniciativas específicas sectoriales para dar cumplimiento al Programa de Gobierno.

Horrenbestez, erabaki honen bidez bat egiten dute, alde batetik, lehendakariari dagokion Gobernu Ekintza planifikatzeko eta koordinatzeko eskumenak –azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 4.1. artikuluak emana– eta, bestetik, planen garrantziagatik eta sailen arteko interakzioagatik Gobernu Kontseiluaren onespena behar duten plan estrategikoen berri izateko organo horrek duen zereginak.

El presente Acuerdo permite hacer confluir las facultades de planificación y coordinación de la Acción de Gobierno que le corresponden al Lehendakari en virtud del artículo 4.1.a del Decreto de 24/2016 de 26 de noviembre, con las funciones del Consejo de Gobierno de conocer acerca de los Planes estratégicos que requieren su aprobación dada su relevancia e interacción interdepartamental.

Horrenbestez, Lehendakariak proposatuta eta beharrezko gogoeta egin ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartzen du:

En su virtud, a propuesta del Lehendakari y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente,

ERABAKIA

ACUERDO

"**Lehena.-** XI. Legegintzaldirako (2017-2020) Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda onestea, batetik –erabaki honen I. eranskin gisa jaso da–. Hor identifikatzen dira plan estrategiko bakoitza zer sailek sustatuko duen, indarrean dauden esleitutako alorren arabera. Eta, bestetik, eranskin hori Eusko Legebiltzarrera igortzea, hartutako erabakiaren berri izan dezan.

"**Primero.-** Aprobar la relación de Planes Estratégicos del Gobierno para la XI Legislatura 2017-2020 incorporado como Anexo I al presente Acuerdo, que identifica los Departamentos promotores de cada uno de ellos, conforme a la asignación de áreas vigente, así como su remisión al Parlamento vasco para su conocimiento.

**Bigarrena.-** Aurretik aipatutako Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoen orientazio orokorrak eta horiek izapidetzeko prozedura onestea. Erabaki honen II. eta III. eranskin gisa jaso dira.

**Segundo**.- Aprobar las orientaciones generales y el procedimiento de tramitación de los Planes Estratégicos del Gobierno a los que se refiere el apartado anterior, que se recogen en el Anexo II y III del presente Acuerdo.

**Hirugarrena.-** Sail- eta sektore-planen hasierako zerrenda kontuan hartzea, IV. eranskin gisa jaso dena.

**Laugarrena.-** Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiak erabaki hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, eta lehendakariak Gobernu Ekintza zuzentzeko eta koordinatzeko duen zereginari laguntzeko izango dira".

**Tercero.-** Tomar en consideración la Relación Inicial de Planes Departamentales y Sectoriales que se recoge en al Anexo IV.

**Cuarto.-** La Secretaría General de la Presidencia adoptará las medidas necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Acuerdo, orientadas a apoyar al Lehendakari en su cometido de dirigir y coordinar la Acción de Gobierno".

**ERABAKIAREN ERANSKINAK**

I. Eranskina: XI. Legegintzaldirako (2017-2020) Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda.

II. Eranskina: Plan estrategikoen orientazio orokorrak.

III. Eranskina: Plan estrategikoen izapidetzeko prozedura onestea.

IV. Eranskina: Sail eta sektore-planen hasierako zerrenda.

**ANEXOS AL ACUERDO**

Anexo I: Relación de Planes Estratégicos del Gobierno para la XI Legislatura 2017-2020.

Anexo II: Orientaciones generales.

Anexo III: Procedimiento de tramitación de los Planes Estratégicos.

Anexo IV: Relación inicial de planes departamentales y sectoriales.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 24an.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 2017.

## ANEXO I: RELACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO PARA LA XI LEGISLATURA

| Planes Estratégicos | **Departamento Responsable de elaboración y coordinación** |
|---|---|
| **1.- Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020** | Lehendakaritza |
| **2.- VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres 2018-2021** | Lehendakaritza |
| **3.- Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública 2020.** | Gobernanza pública y Autogobierno |
| **4.- Plan de Industrialización 2017-2020** | Desarrollo Económico e Infraestructuras |
| **5.- Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación (PCTI) 2020** | Lehendakaritza |
| **6.-Estrategia Internacionalización. Basque Country 2020** | Lehendakaritza |
| **7.- Plan Estratégico de Empleo 2017-2020** | Empleo y Políticas Sociales |
| **8.- Plan Estratégico de Servicios Sociales 2020** | Empleo y Políticas Sociales |
| **9.- IV Programa Marco Ambiental 2020** | Medio Ambiente, Política Territorial y Vivienda |
| **10.- IV Plan Universitario 2019-2022** | Educación |
| **11.- V Plan vasco de Formación Profesional 2018-2021** | Educación |
| **12.- Plan de Salud 2013-2020** | Salud |
| **13.- Plan de Turismo, Comercio y Consumo 2017-2020** | Turismo, Comercio y Consumo |
| **14.- Agenda Estratégica del Euskera 2017-2020** | Cultura y Política Lingüística |
| **15.- Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2020** | Seguridad |

**Nota:** Las denominaciones de los planes tiene carácter divulgativo y en algunos casos pudieran no coincidir exactamente con la denominación del Plan que resulte aprobado.

# I. ERANSKINA: XI. LEGEGINTZALDIRAKO EUSKO JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOEN ZERRENDA

| Plan estrategikoak | Lanketaren eta koordinazioaren sail arduraduna |
|---|---|
| **1.- Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020** | Lehendakaritza |
| **2.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2021** | Lehendakaritza |
| **3.- Berrikuntza Publikoko eta Gobernantzako Plan Estrategikoa 2020** | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua |
| **4.- Industrializazio Plana 2017-2020** | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak. |
| **5.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2020** | Lehendakaritza |
| **6.- Nazioartekotze Estrategia. Basque Country 2020** | Lehendakaritza |
| **7.- Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020** | Enplegua eta Gizarte Politikak |
| **8.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020** | Enplegua eta Gizarte Politikak |
| **9.- Ingurumenaren IV Esparru Programa 2020** | Ingurumena, Lurralde Politika eta Etxebizitza |
| **10.- IV. Unibertsitate Plana 2019-2022** | Hezkuntza |
| **11.- Lanbide Heziketaren V. Euskal Plana 2018-2021** | Hezkuntza |
| **12.- Osasun Plana 2013-2020** | Osasuna |
| **13- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa Plana 2017-2020** | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa |
| **14.- Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020** | Kultura eta Hizkuntza Politika |
| **15.- Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Nagusia 2020** | Segurtasuna |

**Oharra**: Planen izenak horien berri emateko baino ez dira eta zenbaitetan gerta daiteke guztiz bat ez etortzea onartzen den planaren izenarekin.

# ANEXO II

## ORIENTACIONES GENERALES PARA LA PLANIFICACIÓN DE LA XI LEGISLATURA

Sin perjuicio de la necesaria especificidad en el diseño e implementación de cada Plan Estratégico, con la finalidad de establecer unas pautas comunes a considerar en el proceso de elaboración y los contenidos de la planificación en este XI Legislatura, se establecen las siguientes orientaciones con carácter general:

1.- El diseño de los Planes Estratégicos debe cumplir los siguientes tres requisitos previos:

-Ajustarse a los contenidos establecidos en el Programa de Gobierno para cada política sectorial.

-Alinearse con las líneas políticas internacionales y europeas asumidas por esta administración para cada ámbito sectorial.

-Cumplir la programación presupuestaria y el escenario de la planificación económica prevista.

2.- La base de partida de cada Plan estratégico nuevo deberá considerar, en su caso, el Plan implementado en el periodo anterior, convenientemente evaluado.

3.- El periodo de vigencia de la planificación coincidirá, en la medida de lo posible, con los hitos planificadores de ámbito europeo o, en su caso, internacional (Europa 2020, Objetivos de Desarrollo Sostenible ODS 2030)

4.- La elaboración e implementación de cada Plan estratégico, se realizará básicamente utilizando los servicios propios de cada Departamento, contando, en su caso, con el apoyo de los servicios externos como algo complementario o como secretaría técnica de apoyo.

5.- Cada Plan contará con un sistema de seguimiento anual de los indicadores y objetivos establecidos, un informe de evaluación intermedia- en el caso de Planes cuya extensión temporal supere los cuatro años-, y un informe de evaluación final.

6.- El Plan contemplará un sistema de indicadores homologables que permitan la evaluación de los resultados de la política implementada y que, en la medida de la posible, coincida con los indicadores que se incluyan en el Programa de Gobierno.

7.- Los Planes estratégicos deberán estar en vigor en el año 2017, con objeto de disponer de tiempo material para su ejecución a lo largo de la Legislatura.

## II. ERANSKINA

## XI. LEGEGINTZALDIKO PLANGINTZAK EGITEKO ORIENTAZIO OROKORRAK

Plan estrategiko bakoitza diseinatzeko eta inplementatzeko orduan izaten den ezinbesteko espezifikotasuna ahaztu gabe, XI. Legegintzaldi honetan plangintzak egiteko eta horien edukiak lantzeko kontuan hartu behar diren jarraibide komun batzuk ezar daitezen, orientazio orokor hauek ematen dira:

1.- Plan estrategikoak diseinatu aurretik hiru baldintza hauek bete behar dira:

- Sektore-politika bakoitza Gobernu Programan ezarritako edukietara egokitu behar da.

- Sektore-eremu bakoitzak Administrazio honek bere egindako nazioarteko eta Europako ildo politikoekin egin behar du bat.

-Aurrekontu programazioa eta aurreikusitako ekonomia-plangintza bete behar dira.

2.- Plan estrategiko berri bakoitzaren abiaburuan kontuan hartu beharko da aurreko aldian inplementatutako plana, behar bezala ebaluatuta, baldin eta planik izan bada.

3.- Plangintzaren indarraldiak bat egin beharko du, ahal bada, Europako edo, bestela, nazioarteko mugarri planifikatzaileekin (Europa 2020 edo Garapen Jasangarriaren Helburuak 2030).

4.- Sail bakoitzaren berezko zerbitzuak erabilita egin eta inplementatu behar da plan estrategiko bakoitza, eta kanpo zerbitzuak, beharrezkoak badira, laguntza osagarri gisa edo idazkaritza tekniko gisa erabiliko dira.

5.- Plan bakoitzak aurretik ezarritako adierazleen eta helburuen urteko segimendua, tarteko ebaluazio-txostena –lau urte baino gehiagorako planak badira– eta amaierako ebaluazio-txostena egiteko sistema bat edukiko du.

6.- Planak homologagarria den adierazle-sistema bat eduki beharko du, inplementatutako politikaren emaitzak ebalua daitezen; ahal den neurrian, Gobernu Programan sartutako adierazleekin egin behar du bat.

7.- Plan estrategikoek 2017an egon behar dute indarrean, legegintzaldi honetan gauzatzeko denbora izan dadin.

# ANEXO III

## PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN Y TRAMITACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS DEL GOBIERNO

## 1.- ELABORACIÓN DE PLANES ESTRATÉGICOS

### 1.1.- DEFINICIÓN DE LÍNEAS ESTRATÉGICAS Y ECONÓMICAS BÁSICAS

- Definición de las Líneas Estratégicas y Económicas Básicas (LEEB) del Plan por el Departamento promotor. Estas líneas deberán referirse, al menos, a los siguientes aspectos:

  1) Necesidades a satisfacer por la Administración y su conexión con los ejes, compromisos y objetivos definidos en el Programa de Gobierno.
  2) Diagnóstico de situación y descripción de la coyuntura y perspectiva de evolución sobre la que se acometerá el Plan.
  3) Delimitación de las áreas y ámbitos de actuación principales y otros con implicaciones relevantes que corresponden al Gobierno Vasco.
  4) La necesidad u oportunidad de coordinación interdepartamental o interinstitucional.
  5) Los escenarios económicos y presupuestarios esenciales que, conforme a los recursos disponibles, van a delimitar y determinar las medidas con las que se proponga implementar el Plan.

- El proceso de definición de las LEEB se desarrollarán por el Departamento promotor con la participación de la Dirección de Coordinación de Lehendakaritza y de la Viceconsejería de Economía y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Economía, con objeto de integrar cada plan específico en los ámbitos de actuación transversales que les corresponden a esas Direcciones.

- Una vez que el Departamento promotor haya concluido la redacción de las LEEB, las pondrá a disposición de la Dirección de Coordinación de Lehendakaritza a fin de que, en un plazo máximo de diez días hábiles, formulen acerca de esas LEEB las consideraciones que estimen oportunas relativas a sus ámbitos de actuación.

### 1.2.- REDACCIÓN DEL PLAN Y CONTENIDOS

- A partir de las Líneas Estratégicas y Económicas Básicas, el Departamento promotor elaborará el contenido del Plan Estratégico contemplando los siguientes aspectos:

  1) Introducción, sobre la base de las Líneas Estratégicas y Económicas Básicas anteriormente citadas

2) Principios y objetivos
3) Ejes estratégicos de actuación y, en su caso, definición de las líneas de actuación conforme a las que van a desarrollarse los ejes.
4) Detalle de las acciones a desarrollar vinculadas a los ejes estratégicos propuestos.
5) Modelo de relación institucional con otros Departamentos y Administraciones Públicas implicadas en su desarrollo, y fórmulas de participación de los agentes económicos y sociales y la ciudadanía.
6) Determinación de los recursos económicos contemplados.
7) Modelo de gestión del Plan. Organización interna, y estimación de los medios humanos y materiales disponibles o previsibles.
8) Sistema de seguimiento y evaluación del Plan, estableciendo los indicadores que permitan contrastar la idoneidad de la estrategia y medidas desarrolladas.

- El Departamento promotor contará con la participación de la Dirección de Coordinación y de la Dirección de Economía y Planificación en el proceso de elaboración y seguimiento del Plan.

- Los contenidos relativos al Sistema de seguimiento y evaluación deberán quedar concretados en el correspondiente apartado del Plan y ofrecerán los elementos necesarios para dar cumplimiento a lo previsto en el apartado 3.2 de este Anexo.

**2.- APROBACIÓN Y REMISIÓN AL PARLAMENTO**

**2.1.- INFORMES PREVIOS A LA APROBACIÓN POR CONSEJO DE GOBIERNO**

- Una vez concluida la redacción del Plan Estratégico, el Departamento promotor efectuará las siguientes actuaciones para su remisión al Consejo de Gobierno que lo deberá aprobar.

- Solicitud de informe a la Dirección de Coordinación de Lehendakaritza. En este Informe se valorarán los siguientes aspectos del Plan:

    - Los contenidos y objetivos establecidos en el Programa de Gobierno y demás Documentos Institucionales de la Legislatura.
    - La planificación general del Gobierno.
    - El encuadre de sus iniciativas en el marco de la articulación institucional del País Vasco y su marco competencial.
    - Los planteamientos que en su área se lleven a cabo en otros ámbitos administrativos del entorno.
    - Su coherencia técnica con los aspectos básicos de la Planificación.

- Simultáneamente a su remisión a la Dirección de Coordinación, el Departamento promotor trasladará el Plan en tramitación a las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos para que puedan pronunciarse acerca de cualquier aspecto que tenga incidencia en las funciones que les vienen asignadas.

- La Dirección de Coordinación promoverá la remisión conjunta de su Informe y de las aportaciones que las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos estimen oportunas formular. Esta remisión se hará llegar al Departamento promotor dentro de las tres semanas siguientes a su solicitud.

- Informe de la Oficina de Control Económico. Con carácter previo a su elevación a Consejo de Gobierno el Departamento promotor deberá dar traslado del expediente a la Oficina de Control Económico para que emita el Informe que, de conformidad a la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, le corresponde.

### 2.2.- APROBACIÓN POR EL CONSEJO DE GOBIERNO Y REMISIÓN AL PARLAMENTO.

- Una vez recabados los Informes, y efectuados los ajustes que, en su caso, procedan, el Departamento promotor elevará el Plan Estratégico al Consejo de Gobierno para su aprobación y remisión al Parlamento.

- El Acuerdo incluirá un apartado identificando el método de seguimiento y de evaluación que se haya contemplado para el correspondiente Plan.

- Asimismo, el Acuerdo incluirá la fórmula de remisión al Parlamento. Esta fórmula será la que, en su caso, esté fijada en la previsión normativa o la que haya establecido el propio Parlamento y, sino, la que se estime procedente conforme a la naturaleza del Plan.

## 3.- EJECUCIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

### 3.1.- EJECUCIÓN DEL PLAN

- El impulso y seguimiento del Plan será desempeñado por el Departamento Promotor siguiendo el “Modelo de gestión” incorporado en el propio Plan.

- Las incidencias que surjan durante el periodo planificado, que impliquen una modificación sustancial en los aspectos estratégicos o económicos del Plan, serán puestos en conocimiento del Consejo de Gobierno, previo informe de la Dirección de Coordinación y de las Direcciones de Economía y Presupuestos.

**3.2.- SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN**

- Los Planes Estratégicos del Gobierno serán objeto de seguimiento y evaluación en los términos que contemple el propio Plan que habrán de quedar reflejados en el Acuerdo aprobatorio por el Consejo de Gobierno.

- El seguimiento de los Planes ofrecerá una visión de los siguientes aspectos:

  - Grado de cumplimiento de las iniciativas previstas conforme a las previsiones temporales.
  - Estimación inicial del impacto de las medidas previstas en las iniciativas desarrolladas.
  - Valoración de las incidencias más destacables en la ejecución o implantación de las iniciativas y su eventual repercusión en los resultados.
  - Proyección de la estimación de impacto respecto a los resultados finales.

- El seguimiento que se desarrolle se ajustará a un formato previamente incorporado en el correspondiente apartado del Plan. Tal formato de seguimiento identificará los aspectos y/o indicadores conforme a los que va a desarrollarse la monitorización del Plan y las fuentes y bases estadísticas a partir de las cuáles se abordará tal seguimiento.

- Los Departamentos promotores remitirán a la Dirección de Coordinación y a las Direcciones de Economía y Planificación y de Presupuestos la información relativa a los seguimientos y evaluaciones que se efectúen. En todo caso, será preciso la elaboración de un informe de seguimiento anual que contemplará el cumplimiento de los indicadores y objetivos establecidos, así como la coherencia con los planteamientos del Programa de Gobierno, las estrategias generales y sectoriales fijadas por las Instituciones de la UE.

**III. ERANSKINA**

**EUSKO JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOAK EGITEKO ETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA**

## 1.- PLAN ESTRATEGIKOAK EGITEA

### 1.1.- OINARRIZKO LERRO ESTRATEGIKO ETA EKONOMIKOAK DEFINITZEA

- Planaren oinarrizko lerro estrategikoak eta ekonomikoak definitu behar ditu plana sustatuko duen sailak. Lerro horietan, gutxienez, alderdi hauek jaso behar dira:

  6) Administrazioak zer beharrei erantzun behar dien, eta horiek Gobernu Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin zer lotura duten.
  7) Plana egingo den egoeraren diagnostikoa eta aukeraren deskribapena, eta bilakaera-ikuspegia.
  8) Alorrak eta jarduera-eremu nagusien mugaketa, bai eta Eusko Jaurlaritzari dagozkion ondorio nabarmeneko beste batzuena ere.
  9) Sailen arteko eta erakunde arteko koordinazioaren beharra edo aukera.
  10) Oinarrizko ekonomia- eta aurrekontu-agertokiak; horiek zehaztu eta mugatuko dituzte, eskura dauden baliabideen arabera, plana inplementatzeko proposatzen diren neurriak.

- Plana sustatuko duen sailak egingo du oinarrizko lerro estrategikoak eta ekonomikoak definitzeko prozesua Lehendakaritzaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren eta Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordetzaren laguntzarekin, plan espezifiko bakoitza zuzendaritza horiei dagokien zeharkako jarduera-eremuetan sar dadin.

- Plana sustatuko duen sailak oinarrizko lerro estrategikoak eta ekonomikoak idazten dituenean, Lehendakaritzaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren esku jarriko ditu, zuzendaritza horrek, hamar egun baliodun baino lehen, bere jarduera-eremuei buruzko egoki iritzitako gogoetak egin ditzan.

### 1.2.- PLANA ETA EDUKIAK IDAZTEA

- Oinarrizko lerro estrategikoak eta ekonomikoak oinarri hartuta, plana sustatuko duen sailak plan estrategikoaren edukiak landu beharko ditu, alderdi hauek kontuan hartuta:

  9) Sarrera, oinarrizko lerro estrategikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta.
  10) Printzipioak eta helburuak.

11) Jarduera-ardatz estrategikoak, eta, hala badagokio, ardatzak garatuko dituzten jarduera-ildoen definizioa.
12) Proposatutako ardatz estrategikoei loturik garatuko diren ekintzen xehetasunak.
13) Plana garatzen inplikatutako beste sail eta administrazio publiko batzuekin zer erakunde-harreman izango den, eta ekonomia- zein gizarte-eragileek eta herritarrek parte hartzeko zer formula erabiliko diren.
14) Aurreikusitako ekonomia-baliabideen zehaztapena.
15) Plana kudeatzeko eredua. Barne-antolaketa eta eskura dauden edo izan daitezkeen giza baliabideen eta baliabide materialen balioespena.
16) Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema; estrategia eta garatutako neurriak egokiak direla kontrastatzeko aukera emango duten adierazleak finkatu behar dira.

- Plana sustatuko duen sailak Koordinaziorako Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren laguntza izango du, plana landu eta hari jarraipena egiteko.

- Jarraipen- eta ebaluazio-sistemari buruzko edukiak planaren dagokion atalean zehaztu behar dira, eta eranskin honen 3.2. puntuan aurreikusitakoa betetzeko beharrezko elementuak eskaini behar dituzte.

**2.- ONESTEA ETA LEGEBILTZARRERA IGORTZEA.**

**2.1.- GOBERNU KONTSEILUAK ONETSI AURRETIK EGIN BEHARREKO TXOSTENAK**

- Plan estrategikoa idatzita dagoenean, plana sustatzen ari den sailak jarduera hauek egingo ditu plana Gobernu Kontseilura bidali aurretik, Gobernu Kontseiluak onetsi beharko baitu plana.

- Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzari txostena egin dezan eskatu. Txostenean planaren alderdi hauek balioetsiko dira:

    - Gobernu Programan eta legegintzaldiko gainerako erakunde-agirietan zer eduki eta helburu ezarri diren.
    - Gobernuak zer plangintza orokor duen.
    - Ekimenak EAEko erakunde-atalen esparruan eta haren eskumen-esparruan sartzen diren.
    - Inguruko beste administrazio-eremuetan planaren alorreko zer ikuspuntu ari diren gauzatzen.
    - Zer koherentzia tekniko duen plangintzaren oinarrizko alderdiekin.

- Izapidetzen ari den plana Koordinaziorako Zuzendaritzara bidaltzen denean, Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontuen Zuzendaritzetara ere bidaliko du plana sustatzen ari den sailak, haiek esleituta dituzten zereginetan eragina izan dezaketen alderdiei buruzko iritzia eman dezaten.

- Koordinaziorako Zuzendaritzak bere txostenarekin batera Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontuen Zuzendaritzek egitea egoki iritzitako ekarpenak ere bidaliko ditu. Plana egiten ari den sailak eskatu eta hiru asteren barruan bidali beharko da aurretik aipatutako txostena eta ekarpenak.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena. Plana Gobernu Kontseilura bidali aurretik, plana sustatzen ari den sailak Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidali behar dio espedientea, hark dagokion txostena egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen babesean.

### 2.2.- GOBERNU KONTSEILUAK ONESTEA ETA LEGEBILTZARRERA BIDALTZEA.

- Txostenak jaso eta, dagokionean, behar diren egokitzapenak egin ondoren, plana sustatzen ari den sailak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio plan estrategikoa, hark onets eta Legebiltzarrera bidal dezan.

- Erabakian atal berezi bat sartuko da, non dagokion planari jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko zer metodo erabiliko den jasoko den.

- Era berean, Legebiltzarrari bidaltzeko zer formula erabiliko den ere jasoko da. Formula hori izango da arautegian aurreikusitakoa edo Legebiltzarrak berak ezarritakoa, edo, bestela, planaren izaeraren arabera egokitzat jotzen dena.

## 3.- GAUZATZEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

### 3.1. PLANA GAUZATZEA

- Plana sustatzen ari den sailak berak bultzatuko du plana eta egingo dio jarraipena, planean bertan sartutako “kudeaketa ereduari” jarraituz.

- Planifikatutako aldian sortzen diren gorabeherak, baldin eta planaren alderdi estrategiko edo ekonomikoetan aldaketa nabarmenak egitea eragiten badute, Gobernu Kontseiluari jakinarazi beharko zaizkio, Koordinaziorako Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Aurrekontuetako Zuzendaritzen txostenak jaso ondoren.

## 3.2.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

- Eusko Jaurlaritzaren plan estrategiko guztiei egin behar zaie jarraipena eta ebaluazioa, plan bakoitzean jasotakoari jarraituz, eta Gobernu Kontseiluak onetsitako erabakian jasota geratu behar dira.

- Planei egingo zaien jarraipenak alderdi hauei buruzko ikuspegia emango du:

    - Aurreikusitako ekimenak zenbateraino bete diren, denbora-aurreikuspenak kontuan hartuta.
    - Aurreikusitako neurriek garatutako ekimenetan izango duten eraginaren hasierako balioespena.
    - Ekimenak gauzatzerakoan edo ezartzerakoan izandako gorabehera aipagarrienen balorazioa, eta emaitzetan izan ditzaketen balizko ondorioak.
    - Eraginaren balioespenaren proiekzioa amaierako emaitzekiko.

- Egingo den jarraipenak planaren dagokion atalean aurrez jasotako formatuari jarraitu behar dio. Jarraipen-formatuak alderdi edo adierazle batzuk identifikatu behar ditu –horien arabera egingo da planaren monitorizazioa–, bai eta iturri eta oinarri estatistikoak ere, horiek izango baitira jarraipena egiteko oinarri.

- Planak sustatzen dituzten sail guztiek bidali behar dizkiete Koordinaziorako Zuzendaritzari eta Ekonomia eta Plangintzako eta Aurrekontuetako Zuzendaritzei egiten dituzten jarraipen eta ebaluazioei buruzko txostenak. Edonola ere, urteko jarraipen-txostena egin beharko da beti, non jaso beharko den ezarritako adierazleak eta helburuak bete diren, eta Gobernu Programaren planteamenduekin eta EBko erakundeek ezarritako estrategia orokorrekin eta sektore-estrategiekin koherentea izan den.

# ANEXO IV

## RELACIÓN INICIAL DE PLANES DEPARTAMENTALES XI LEGISLATURA[1]

| XI Legislatura |
|---|
| **Lehendakaritza** |
| 1.-Plan Anual de Publicidad y Comunicación Institucional * |
| 2.- IV Plan Director de Cooperación al Desarrollo 2018-2021 * |
| |
| **Gobernanza Pública y Autogobierno** |
| 3.- I Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Administración general y OOAA[2] |
| 4.- Plan sobre Datos abiertos-Open data y BIg data |
| |
| **Desarrollo Económico e Infraestructuras** |
| 5.- Plan de apoyo integral al sector agrario 2014-2020 (Programa de Desarrollo Rural)[3]. |
| 6.- Plan Gaztenek para Jóvenes Agricultores |
| 7.- Plan de Pesca y Acuicultura de la Comunidad autónoma de Euskadi 2020. |
| 8.-Plan de apoyo a las personas emprendedoras 2017-2020 * |
| 9.- Plan de Internacionalización Empresarial 2017-2020[4] |
| 10.- IV Plan Integral de Atención al trabajo temporero 2016-2020 * |
| 11.- Agenda Digital de Euskadi 2020 |
| 12.- Estrategia Energética de Euskadi 2030, 3E 2030 ** |
| 13.- Planes específicos de fomento de las energías renovables |
| 14.- Plan Director del Transporte Sostenible: Euskadi 2020 |
| 15.- Plan Integral de Movilidad Eléctrica |
| 16.- Plan de la Industria Alimentaria y Gastronomía |
| |
| **Empleo y Políticas Sociales** |
| 17.- Estrategia de Inversión en las Familias y en la Infancia* |
| 18.- IV Plan vasco de Inclusión 2017-2020* |
| 19.- Estrategia vasca con la Inmigración |
| 20.- Estrategia vasca del voluntariado 2017-2020 |
| 21.- Estrategia de promoción del tercer sector social de Euskadi* |
| 22.- IV Plan Joven. |
| 23.- Estrategia de Envejecimiento activo 2020 |
| 24.- Estrategia Vasca de Personas sin Hogar 2017-2020 |
| 25.- Estrategia de apoyo a Personas cuidadoras 2020 |
| |

[1] Las denominaciones de los planes tiene carácter divulgativo y en algunos casos pudieran no coincidir exactamente con la denominación del Plan que resulte aprobado.

[2] En rojo: Planes vigentes durante toda la Legislatura

[3] Este plan contiene lo siguientes Programas: (1) Plan de actuación en el sector rural; (2) Plan de emprendimiento rural

[4] El Plan de Internacionalización Empresarial 2017-2020 se incluye en la Estrategia de Internacionalización Basque Country 2020 (Plan Estratégico).

| |
|---|
| **Medio ambiente, Planificación territorial y Vivienda** |
| 26.- Programa de apoyo a la rehabilitación de Vivienda 2017-2020 |
| 27.- Estrategia de Biodiversidad de la CAPV 2030 ** |
| 28.- Plan de protección de suelos contaminados* |
| 29.- Plan de Prevención y Gestión de Residuos de la CAPV 2020*. |
| 30.- Plan Hidrológico de la CAPV 2015-2021 |
| 31.- Estrategia de Cambio climático 2050 del País Vasco. Klima 2050. ** |
| 32.- Plan Director de Vivienda 2017-2020 * |
| 33.- Directrices de Ordenación Territorial (Lurraldea 2040) ** |
| |
| **Hacienda y Economía** |
| 34.- Plan de Estadística de la CA de Euskadi 2017-2020 * |
| |
| **Educación** |
| 35.- II Plan de Atención educativa al alumnado Inmigrante en el marco de la escuela inclusiva intercultural 2016-2020 |
| 36.- Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo 2017-2020 |
| 37.- Plan de atención al alumnado de altas capacidades |
| 38.- Plan de aprendizaje a lo largo de la Vida*[5] |
| |
| **Salud** |
| 39.- Plan Estratégico Socio-sanitario 2016-2020* |
| 40.- VI Plan de Adicciones de Capv * |
| 41.- Estrategia de Innovación e Investigación de la Salud 2020 |
| 42.- Plan de Cuidados paliativos de Euskadi 2016-2020 |
| 43.- Plan Estratégico Oncológico |
| |
| **Turismo, Comercio y Consumo** |
| 44.-.Estrategia vasca de promoción del Sector Turístico 2020 [6] |
| |
| **Cultura y Política Lingüística** |
| 45.- Plan Integral de la Cultura-Kultura 2020 |
| 46.- Plan de Uso del Euskera del GV para el VI Período de Planificación (2018-2022). |
| 47.- Plan Director de Actividad Física 2020 |
| 48.- Plan de Industrias Culturales y Creativas: “Euskadi Distrito Creativo”[7] |
| 49.- Plan Interinstitucional para el impulso y la transmisión del euskera |
| |

[5] Según el Artículo 49 Ley 1/2013 de aprendizaje a lo largo de la vida

[6] La Estrategia vasca de promoción del Sector Turístico 2020, actualmente vigente, pudiera quedar incorporada al Plan estratégico de Turismo y Comercio 2020.

[7] En esta planificación se incluyen la Estrategia interinstitucional de Desarrollo de las industrias culturales y creativas en Euskadi, el Programa Euskadi creativa–Creativa Basque Country y el Plan de internacionalización de las industrias culturales y creativas.

* Planificación prevista en normativa legal especifica.

** Estrategias de planificación con un marco de actuación temporal y territorial que exceden del ámbito de actuación departamental.

| |
|---|
| **Seguridad** |
| 50.- Plan de Seguridad vial y Movilidad segura y sostenible 2015-2020* |
| |
| **Trabajo y Justicia** |
| 51.- Plan General de Normalización Lingüística de la Administración de Justicia 2011-2020 |
| 52.- V Plan de Justicia juvenil 2019-2023 |
| 53.- Estrategia vasca de Salud y Seguridad en el Trabajo 2015-2020. |
| 54.- Plan de Impulso de la Administración Electrónica de Justicia |

**IV. ERANSKINA**

**XI. LEGENGINTZALDIKO SAILETAKO PLANEN HASIERAKO ZERRENDA[8]**

| **XI. LEGEGINTZALDIA** |
|---|
| **Lehendakaritza** |
| 1.- Publizitate eta komunikazio instituzionalaren urteko plana* |
| 2.- Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Zuzentzailea 2018-2021* |
| |
| **Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.** |
| 3.- Administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana[9]. |
| 4.- Datu irekiei buruzko plana –Open data eta BIg data. |
| |
| **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak.** |
| 5.- Nekazaritza sektoreari babes osoa emateko plana 2014-2020 (Landa Garapenerako Programa)[10]. |
| 6.- Gazte nekazarientzako Gaztenek Plana |
| 7.- EAEko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020. |
| 8.- Ekintzaileei Laguntzeko Plana 2017-2020* |
| 9.- Enpresa Nazioartekotzeko Plana 2017-2020[11] |
| 10.- Sasoiko lana aintzat hartzeko IV. Plan Integrala, 2016-2020*. |
| 11.- Euskadiko Agenda Digitala 2020 |
| 12.- Euskadiko Energia Estrategia 2030, 3E2030. ** |
| 13.- Energia berriztagarriak sustatzeko plan espezifikoak. |
| 14.- Garraio Jasangarriaren Plan Zuzentzailea: Euskadi 2020 |
| 15.- Mugikortasun Elektrikoaren Plan Zuzentzailea. |
| 16.- Elikagaien Industriaren eta Gastronomiaren Plana |
| |
| **Enplegua eta Gizarte Politikak** |
| 17.- Familiei laguntzeko erakunde arteko plana*. |
| 18.- Gizarteratzeko EAEko IV. Plana*. |
| 19.- Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren V. Plana, 2017-2020. |
| 20.- Boluntariotzaren Euskal Estrategia. |
| 21.- Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia*. |
| 22.- IV. Gazte-plana |
| 23.- Zahartze aktiborako Estrategia 2020 |
| 24.- Etxerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2017-2020 |
| 25.- Zaintzaileei laguntzeko Estrategia 2020 |
| |

---

[8] Planen izenak horien berri emateko baino ez dira eta zenbaitetan gerta daiteke guztiz bat ez etortzea onartzen den planaren izenarekin.

[9] Gorriz: Legegintzaldi osoan egongo dira indarrean plan horiek.

[10] Planak programa hauek ditu: (1) Landa-sektorean jarduteko plana; (2) Landa-ekintzailetzako plana.

[11] 2017-2020 Enpresa Nazioartekotzeko Plana Basque Country 2020 Nazioartekotzeko Estrategiaren barruan sartzen da (plan estrategikoa).

| Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza. |
|---|
| 26.- Etxebizitza Birgaitzen Laguntzeko Programa 2017-2020. |
| 27.- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030. ** |
| 28.- Kutsatutako Lurzoruak Babesteko Plana*. |
| 29.- EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020*. |
| 30.- EAEko Plan Hidrologikoa, 2015-2021. |
| 31.- Klima Aldaketaren aurkako EAEko Estrategia 2050: Klima 2050. ** |
| 32.- Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea, 2017-2020*. |
| 33.- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (Lurraldea 2040) ** |
| |
| **Ogasuna eta Ekonomia** |
| 34.- EAEko Estatistika Plana, 2017-2020*. |
| |
| **Hezkuntza** |
| 35.- Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, 2016-2020ko eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan. |
| 36.- Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta baterako hezkuntza lantzeko Plan Zuzentzailea, 2017-2020. |
| 37.- Gaitasun Handiko Ikasleen Arretarako Plana. |
| 38.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Plana*.[12] |
| |
| **Osasuna** |
| 39.- Plan Estrategiko Soziosanitarioa, 2016-2020*. |
| 40.- Adikzioen EAEko VI. Plana. |
| 41.- Osasunaren alorreko Berrikuntza eta Ikerketa Estrategia 2020. |
| 42.- EAEko Zainketa Aringarrien Plana 2016-2020. |
| 43.- Plan Estrategiko Onkologikoa. |
| |
| **Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa** |
| 44.- Turismoaren sektorea sustatzeko Euskal Estrategia 2020.[13] |
| |
| **Kultura eta Hizkuntza Politika** |
| 45.- Kulturaren Plan Integrala 2020 |
| 46.- Euskararen Erabilerari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Plana VI. Plangintza Aldirako (2018-2022). |
| 47.- Jarduera Fisikoaren Plan Zuzentzailea 2020 |
| 48.- Kultura- eta Sormen-industrien Plana: “Euskadi barruti sortzailea”[14] |
| 49.- Euskararen Sustapenerako eta Transmisiorako erakunde arteko Plana. |
| |

[12] Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko 1/2013 Legearen 49. artikuluaren arabera.

[13] Turismoaren sektorea sustatzeko Euskal Estrategia 2020 indarrean dago gaur egun, baina baliteke Turismo eta Merkataritzako 2020 Plan Estrategikoaren barruan sartuta geratzea.

[14] Plangintza honetan sartzen dira: Euskadin kultura- eta sormen-industrien garapenerako erakunde arteko estrategia, Euskadi sortzailea programa –Creative Basque Country– eta kultura- eta sormen-industria nazioartekotzeko plana.

* Berariazko lege-arauetan aurreikusitako plangintza.

** Sailen jardun-eremua gainditzen duten denbora- eta lurralde-esparrua dute plangintza-estrategia horiek.

| |
|---|
| **Segurtasuna** |
| 50.- Bide-segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plana 2015-2020*. |
| |
| **Lana eta Justizia.** |
| 51.- Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizaziorako Plan Orokorra 2011-2020. |
| 52.- Gazte Justiziaren V. Plana (2019-2023). |
| 53.- Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Euskal Estrategia (2015-2020). |
| 54.- Justiziako Administrazio Elektronikoa Sustatzeko Plana |